




# Ume eleanitzen

## GURASOENTZAKO ESKULIBURUA



- Hitz egin euskaraz seme-alabekin, eta, aukera izanez gero, bikotearekin ere bai
- Anima itzazu aisialdian euskarazko jardueretan parte hartzera
- Motiba itzazu

## Aita-ama agurgarriok:

Gero eta arruntagoa da gure inguruko umeei euskaraz entzutea. Izan ere, guraso ugarik hizkuntza gorde edo ikasi duzue eta orain seme-alabei transmititzeko ahalegina egiten duzue. Beste askok, berriz, jatorriz erdaldunak izan arren, euskara ikasi eta garatzeko aukera eman nahi diete seme-alabei horientzat aberasgarria delako.

Txikitatik hizkuntza bat baino gehiago ikastea onuragarria da, eta gainera umeez erraz-erraz ikas dezakete hizkuntza bat baino gehiago aldi berean.

Bestalde, aisialdiko jarduerak ezinbestekoak direnez hizkuntza modu naturalean garatzeko, ume eta gazteek eskolaz kanpo euskaraz jarduteko dituzten aukerak zerrendatu ditugu.

Liburuxka hau elebitasunean adituak diren Alma Flor Ada eta Colin Baker irakasle entzutetsuen GUÍA PARA PADRES Y PROFESORES DE NIÑOS BILINGÜES\* liburuan oinarrituta dago.

Euskarazkoa eta gaztelaniazko bertsioak ez dira erabat berdinak, euskarazkoa euskaraz dakizuen gurasoon kezka eta beharrezanez begira prestatu baitugu, eta gaztelaniazkoa, berriz, euskaraz ez dakitenen beharrei begira.



**SORALUZEKO  
UDALA**

Lagungarri izango zaizuelakoan,

**SORALUZEKO UDALAREN HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
BATZORDEA**

**EZ UKATU BI HIZKUNTZA OFIZIALAK  
MENPERATZEKO AUKERA ZURE SEME-ALABEI,  
EUREN MESEDETAN ARITUKO ZARA.**

# aurkibidea

## **Zer egin etxean euskararen erabilera indartzeko .....**

**4**

- Informazio orokorra
- Biok euskaldunak bazarete
- Zure bikoteak euskaraz ez badaki

## **Ohiko kezak .....**

**8**

- Gure semeak/alabak euskaraz ikasten du. Zailtasunik izango du etorkizunean gaztelania ikasteko?
- Gure alabak euskara eta gaztelania nahasten ditu. Zer egin dezaket?
- Ez nago euskaraz alfabetatua. Nola lagundu ahal diot semeari/alabari eskolako lanak egiten?
- Nola lagundu ahal diot semeari/alabari euskaraz irakurtzen eta idazten?
- Non lortu dezaket seme-alabentzako euskarazko liburu eta beste gai batzuei buruzko informazioa?
- Euskaraz jakin arren, gure artean gaztelaniaz aritzeko ohitura daukagu. Eraginik izan dezake horrek gure seme-alaben euskara gaitasunean?
- Euskara batua ala etxekoa, zein erabili behar da?
- Nire bikotekidearekin euskaraz hitz egitea asko kostatzen zait. Zer egin dezaket?
- Zein hizkuntza erabili behar dugu euskaraz ez dakitenak gurekin daudenean?

# ZER EGIN ETXEAN *EUSKARAREN* ERABILERA INDARTZEKO

Askotan izaten dira bi hizkuntza batera ikastearen inguruko kezka gurasoen artean.

Azken 35 urteotan eginiko ikerketen emaitzek argi eta garbi utzi dute txikitatik hizkuntza bat baino gehiago ikatea ez dela kaltegarria, onuragarria baizik: haur batek aldi berean hizkuntza bat baino gehiago ikasteko gaitasuna dauka, bi hizkuntza ezagutzen dituen haurrak (elebidunak) hizkuntza bakarra ezagutzen duenak baino errazago bereganatzen du hirugarren hizkuntza bat, adimen malgutasun handiagoa du, komunikaziorako gaitasun handiagoa...

Hizkuntzak ikasterakoan oinarri-oinarrizkoak dira hiru faktore hauek: hizkuntza erabiltzea, ezagutzea eta motibatuta egotea. Hirurak dira beharrezkoak.

Gure seme-alabek (baita guk ere) zenbat eta gehiago erabili hizkuntza, orduan eta gehiago ezagutuko dute, eta orduan eta motibatuago sentituko dira. Eta, alderantziz, zenbat eta motibatuago egon, orduan eta gehiago ezagutuko dute eta gehiago erabiliko dute. Guztiak dira elkarren osagarri.

Gaztelaniari dagokionez, ez duzue kezkatu beharrik, hiru faktore horiek bermatuta daude eta. Gizarte honetan erdara da nagusi; beraz, hazten doan neurrian, umeak gaztelaniaz egiteko aukera ugari izaten du. Hori ez da horrela gertatzen euskararen kasuan.

Eskola da gizarte honek antolatu duen erakunde nagusia umeek bi hizkuntza ofizialak ikasteko. Baina urte osoko orduetatik haurrak gelan

%15 pasatzen du soilik, eta gainera eskolako hizkera ez da lagun arteko hizkera informala, gaiak gehienetan eskolarrak izaten dira eta.

Beraz, eskolaz kanpoko erabilera-esparruak ziurtatu behar ditugu euskararen ezagutza eta motibazioa bermatzeko. Horregatik da garrantzitsua gure seme-alabek, eskolatik kanpo dituzten aukera eta esparru guztiak aprobetxatzea (batez ere familia, baina baita komunikabideak, eskolaz kanpoko jarduerak eta abar), eta euskara modu informalean eta naturalean erabiltzea, orduan gozatuko dute-eta hizkuntzarekin.

Beraz, benetan komenigarria eta garrantzitsua da etxean euskaraz egiteko daukazuen aukera guztiak aprobetxatzea.



## Biok euskaldunak bazarete:

- **Ez ezazue euskaraz umearekin bakarrik egin.** Zuen artean euskaraz egiten baduzue, haurrak ere euskaraz egiteko ohitura finkatuko du seguruenik.
- **Etxeko euskara erabili konplexurik gabe:** naturaltasunez, informaltasunez, etxeko giroak eskatzen duen modura.
- **Eskolan bai, baina eskolaz kanpo ere bai:** garrantzitsua da bere gustuko gauzak ere euskaraz egitea (kirola, dantza, musika...)
- **Umeari kantuak, ipuinak, jolasak erakutsi:** horiek haurrekin euskaraz eginez gero, haurrentzat mesedegarria izango da, bai hizkuntza hobeto jasoko duelako, bai afektibitatearekin lotuko duelako.
- **Eguneroko zereginetan ere euskara normal erabili:** euskarazko prentsa eta aldizkariak irakurri, eskaini umeei euskarazko ikus-entzunezkoak, etxeko oharrak euskaraz idatzi, erosketak euskaraz egin, zuen lagun euskaldunekin euskaraz aritu...
- **Saia zaitetze zuen euskarazko gaitasuna, ahozkoa zein idatzizkoa aberasten:** haurrak antzemango du, eta zuek ere eskertuko duzue.
- **Gainerako guraso euskaldunekin euskaraz egin** eta, bereziki, gutxiago dakitenei euskaraz aritzeko aukera eman.

## Zure bikoteak euskaraz ez badaki

(aurreko aholku guztiez gain):

- **Pertsona bakoitzak hizkuntza bat:** oso garrantzitsua da euskaraz dakien gurasoak euskaraz egitea haurrari, horrela, euskara ere lehen hizkuntza izango du eta hori ezingo dio beste inork eman.
- **Familia bidezko transmisioa da hizkuntza bat jasotzeko erarik** *UNIBERTSALENA, NATURALENA, ABERATSENA, MERKEENA eta ERAGINKORRENA.*

**EUSKARAZ BADAKIZU, EZ UKATU AUKERA  
HORI ZURE SEME-ALABEI,  
EUREN MESEDERAKO IZANGO DA ETA.**





# OHIKO kezkak

*Euskara batua ala etxekoa, zein erabili behar da?  
Gure alabak euskara eta gaztelania nahasten ditu. Zer egin dezaket?  
Ez nago euskaraz alfabetatua. Nola lagundu ahal diet seme-alabei  
eskolako lanak egiten?*

Maiz izaten dira halako kezkak eskola adineko seme-alabak dituzuen guraso euskaldunon artean. Hori dela-eta, galdera horiei erantzuteko asmoz eta, ahal den neurrian, jarraibide egokiak eskaintzeko xedez, hona hemen zuentzat interesgarriak izan daitezkeen hainbat galdera-erantzun.

**Gure semeak/alabak euskaraz ikasten du. Zailtasunik izango du etorkizunean gaztelania ikasteko?**

*Euskara hutsean eskolatutako umeek oso erraz ikasten dute gaztelania. Batetik, hizkuntza batean ikasten diren edukiak bigarren hizkuntzara aldatu daitezkeelako erraz bai erraz; eta bestetik, gaztelania gehiengoaren hizkuntza izanda, umeak gaztelaniaz aritzeko aukera eta erreferentzia ugari dituelako.*



## **Gure alabak euskara eta gaztelania nahasten ditu. Zer egin dezaket?**

*Ume gehienek nahasten dituzte euskara eta gaztelania hainbat egoeratan eta hainbat lagunekin, baina, oro har, fenomeno hori desagertu egiten da hizkuntza biak garatzen diren neurrian. Oso garrantzitsua da umeari errieta ez egitea erratzen den bakoitzean eta haren komunikazio-ahaleginak txalotzea.*

## **Ez nago euskaraz alfabetatua. Nola lagundu ahal diot semea-ri/alabari eskolako lanak egiten?**

- *Saia zaitez berarekin batera ikasten.*
- *Ikastaro txiki bat ere egin dezakezu eta oso esker onekoa izango da zuretzat.*
- *Haurrari eman beharreko laguntzaz balia zaitezke, zure euskara-maila hobetzeko:*

*Arretaz irakurriz.*

*Ulertzen ez dituzun hitzak berari galdetuz edo hiztegia begiratzuz.*

## **Nola lagundu ahal diot semea-ri/alabari euskaraz irakurtzen eta idazten?**

*Hasteko, gurasook oso argi eduki behar duzue irakurketa eta idazketa jardura atseginak izan behar direla umeentzat. Haurtzaroan, irudimena lantzeko liburu bizi, erakargarri eta barre-eragileak eskaini. Animatu seme-alabak euskaraz irakurtzera eta idaztera, eta, batez ere, ez azpimarratu etengabe umearen ortografia edo gramatika akatsak.*



### **Non lor dezaket seme-alabentzako euskarazko liburu eta beste gai batzuei buruzko informazioa?**

*Euskarazko argitalpen ugari aurki daitezke merkatuan ume eta gaztetxoentzat, oro har, adinaren arabera sailkatuta. Gainera, aukera bikaina da herriko liburutegia erabiltzea: doako zerbitzua da eta guztiz baliagarria. Horrez gain, Euskarazko Produktuen Katalogoan informazio baliagarria aurkituko duzu euskarazko liburu, disko eta beste gai batzuei buruz, batez ere, argitaratu berri direnei buruz ([www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus)).*

### **Euskaraz jakin arren, gure artean gaztelaniaz aritzeko ohitura daukagu. Eraginik izan dezake horrek gure seme-alaben euskara gaitasunean?**

*Euskaraz dakiten gurasoek egiten ez badute, seme-alabek euskararekiko duten pertzepzioan eragin dezake: euskara umeentzako bakarrik dela pentsatzea, gizarteratzeko ez duela balio sinestea; bizitzeko ez, baizik eta ikasteko bakarrik dela barneratzea... Horrek ez erabiltzea ekar dezake, eta ez erabiltzeak, gaitasunean jaistea.*

### **Euskara batua ala etxekoa, zein erabili behar da?**

*Etxeko euskara erabili konplexurik gabe; egokiagoa da etxean euskalkia erabiltzea euskara batua baino. Dakizuen euskara hori erabili, naturaltasunez, etxeko giroak eskatzen duen modura.*

### **Nire bikotekidearekin euskaraz hitz egitea asko kostatzen zait. Zer egin dezaket?**

- Beste ohitura batzuk aldatu dituzun bezala, hauek ere aldatzeko erabakia hartu eta gauza txikiekin hasi eta behin eta berriz errepikatu.
- Horiek finkatu ahala, berri batzuei heldu...
- Prozesuaz hitz egin eta baloratu.



## **Zein hizkuntza erabili behar dugu euskaraz ez dakitenak gurekin daudenean?**

*Ume elebidunak modu egokian hazteko, hizkuntza bakoitzaren erabilera mugatu behar da:*

*- Familia-hizkuntza euskara bada, egin beti euskaraz seme-alabei. Eta, zuekin daudenek (lagunek...) euskara ulertzen ez badute, eta esandakoak eurei eragiten badie, itzuli gaztelarrera. Jarrera horrek argi erakusten du familia-hizkuntza babestu eta garatu nahi dela, eta ez dela ezkututzen, ezta hizkuntza nagusiaren menpean jartzen ere.*

*-Bikotekide bakar batek euskaraz badaki, ordea, biderik ohikoena dugu euskaldunak umeari euskaraz egitea eta gaztelaniadunak gaztelaniaz. Gerora, umek bi hizkuntzak garatu ahala, ondo moldatuko dira hizkuntza batean zein bestean.*

**Eta gogoan izan:**

**EUSKALDUN IZATEA ETA BIZITZEA MUNDU  
HONETAKO KIDE ETA HERRI IZATEKO ERA DUIN ETA  
ORIGINALA DELA.**

**GEURE BURUARI MESEDE EGITEAZ GAIN, INORI  
KALTERIK EGITEN EZ DIONA.**

**ETA GAINERA, MUNDUA BERA OSOAGO EGITEN  
LAGUNTZEN DUENA.**

- Hitz egin euskaraz seme-alabekin, eta, aukera izanez gero, bikotearekin ere bai.
- Anima itzazu aisialdian euskarazko jardueretan parte hartzera.
- Motiba itzazu.

**EZ UKATU BI HIZKUNTZA OFIZIALAK  
MENPERATZEKO AUKERA ZURE  
SEME-ALABEI, EUREN MESEDETAN ARITUKO ZARA.**